

ANTZERKIA

Iceberga

KOADERNOA ZURI

Testua: Arantxa Iturbe, Agurtzane Intxaurreaga.

Aktoreak: Itziar Ituño, Miren Gojenola eta A. Intxaurreaga.

Zuzendaria: A. Intxaurreaga.

Data eta lekua: Social antzokia, Basauri. 11/25/16.

Jaime VALVERDE

Emakumeengana indarke-riaren kontra egunean, emakumeengana zapalkuntzari buruzko obra bikaina eskaini du Hika Teatroak Basaurin. Lehenengo asmoa "Bernarda Albaren etxea" taularatzea omen zen, baina zorionez egileek obra berri bat sortu dute azkenik, Lorcaren lan handiaren izpiritu eta atmosfera itogarria gordez eta gurera egokitutako istorio eraginkor bat plazaratuz.

Esango nuke iceberg moduko istorioa dela kontatzen dena, non urak ezkatutakoa, kanpoko baina askoz handiago den. Ahizpa biren bizitzaren azpian badago zama ikaragarri bat hondora erakartzen dituen. Aktoreen jokatzeko bikainen bermatuta, tragedia familiar honen kausa argituz doa: hots, ama elizkoi eta zapaltzailea, hilik egon arren bi alaben ametsak oraindik gaiztozteko kapaza dena eta beraien arteko erlazioa pozoitzen duena.

Baina arazoa ez da zehazki ama; estruktura handiago baten bitartekaria baina ez da berau, eta haren lehenengo biktima. Elizak sostengatu duen patriarkatua dute arazoa, emakumei gainean ezartzen zaien pisu ikusezina, iraultako iceberga balitz bezala, kristalezko sabaiaren gainetik beheranzko presio ikaragarria egiten duena. Aldiz, obra hau ez da Lorcarena bezain tragikoa; hemen, errealitatean bezala, zapalduen arteko zapalketa elkartasun bihur baitaiteke, baldin eta bi protagonistak beren ahizpatasuna berreskuratzeke gai badira.

Benito Lertxundi recala en Durango dentro de la gira por su cincuenta aniversario

El año pasado se cumplieron 50 años de actividad musical de Benito Lertxundi. Una gira continúa celebrando tan longeva y admirable carrera con un nuevo concierto en Ezkurdi de Durango el 3 de diciembre.

Pablo CABEZA | DURANGO

En 1966 Benito Lertxundi se dispone a grabar su primer single. En 1967 la discográfica Cinsa le publica, bajo el logo de Ez Dok Amairu y con portada de Nestor Basterretxea, un ep de cuatro canciones: "Egia", "Egunsentia", "Zenbat gera" y "Loretxea". Llegarían tres eps más antes de que debutase en 1969 con Herri Gogoa en elépé con disco homónimo. Una portada clásica en el recuerdo con tres perfiles de Lertxundi.

Habría más referencias a 45 rpm y discos dignamente ambiciosos como "Zuberoa/ Askatasunaren semei" o "Altabizkar/ Itzaltzuko bardoari". El calendario está en 1981. Las historias, éxitos, lágrimas, risas que restan aún por cruzarse son una inmensidad. Todos los gestos, buenos y malos, briosos y calmados, acertados y disparos al palo son la sabia experiencia y el presente: «Ahora mismo hago las cosas de manera más sencilla y natural, y a veces tengo la impresión de que las canciones antes de hacerlas ya estaban hechas», reflexiona Lertxundi, quien lejos de entrar en las di-


CRONOLOGÍA

«La más veterana del grupo es Olatz Zugasti (arpa, teclado y voz) que lleva 34 años en directo; luego, por orden de incorporación, está Pello Ramirez (cello y acordeón), Gurutz Bikuña (guitarras), Angel Unzu (guitarra acústica y bouzuki), Juantxo Zeberio (piano y teclados) Amaier Cajaville (bajo) Intza Unanue (coros), David Gorospe (batería) y la última incorporación, Xabier Zeberio, cuyo debut conmigo fue el domingo 20 en el teatro Arriaga de Bilbo (violín y nyckelarpa)».

námicas de reediciones con remasterizaciones solo quiere que las canciones suenen como las escucha interiormente, «todo lo demás queda en segundo plano», matiza.

Le hablamos a Lertxundi de un potencial ajuste de cuentas con algún disco concreto, una grabación rebelde por la causa que fuere o bien por afrontar en directo al completo un disco singular de su carrera. «Respecto a la primera cuestión, a veces pienso que tengo una cuenta pendiente con 'Altabizkar', pero ocurre que ahora mismo me encuentro en una fase muy diferente y echar la mirada atrás me resulta un poco costoso. En cuanto a la segunda sugerencia, el momento en el que vivo no estoy pensando en tal cosa, pero quizá en un futuro no muy lejano pueda surgir la idea de hacerlo».

Lo más inmediato es disfrutar de la actuación en Durango el próximo 3 de diciembre en Ezkurdi Jai Alai Pilotalekua. 22.00. Entradas a la venta en Txukun taberna, Jai Alai taberna, Hitz liburudenda (Durango), Kali Ostendi taberna (Matiena) y Kutzabank. Precio, 18 euros.



Benito Lertxundi agradeciendo los aplausos en su última actuación en Kafe Antzokia de Bilbo. P.C.

Dutxa beroa



Jon GARMENDIA
Idazlea

Os pitalean hartzen duzun lehen dutxa kontzientea, berezia da.

Hark ekartzen zaitu erre-alitatera berriro, eta hor, atzera begira dezakezu, gertatu denari erreparosoa eman, izan duzun eritasunari bekoz beko behatzen diozu, eragin dizkizun zauri eta orbainei ere bai, edo betirako utzi dizun arrastoari, eta aitzineko agertokiari buruz hausnartzen has zaitezke. Kartzelan ere gertatzen da, egokitu zaituz ziega zuloan doi-doi ur epelak zure gorputza bustitzen duen heinean, aurreko egun guztiak datozkizu gogora, eta ondoren etorriko direnei behatzen hasteak ardura ematen badizu ere, ateratzeko falta zaizkizun dutxa beroak zenbatzen has zaitezke. Etxea atzean utzi eta erbestearen teila-tupean babes hartuta dutxa beroaren gozoa mingotsa bilakatu ohi da bihotzak ordura arte izan duen maitasun praktikatuen falta sumatzen duelarik; ez zaude etsita, baina hortik goiti zerbait eskas izanen duzula lortzen zaizu barnean. Dutxa hori hartzen duten pertsonekin bildu zait burua, zure hutsunea sumatzen dutenekin, kezka eta gabeziez betetako inguruabarrean zuk ukan ahal duzun segurtasun perimetro ttipiena ere ez dutenekin, eta haien dutxa kontzientek bakoitzari zer erraten dion hausnarrean ibili naiz. Garaitu horretan dutxako urak hotz izotz bilakatu dira, kontzientearen eta inkontzientearen murrak gaintzen dituen sabaiari begiratu ezinik. Zu, zuk sentituaz gain, besteek sentitzen dutena ere bazarela sentitu dudalako.